

Neke existentziala

Nekea da gure egunerokotasunaren formula; baina zerk kontsumitzen gaitu gu, kontsumoa ezinbestekotzat dugun gizarte honetan? Gaur egun dirudi erlojua azkarrago dabilela, ez dagoela denborarik ezta sukaldatzeko ere, baina aldi berean dugun denbora betebeharrak amaigabez betetzen dugu. Agian bizitza betebeharrak betetzen gabil, gizaki moduan erreala sentitzea, bizitzak duen ziurgabetasua ulertzen ikastea baino erreagoa dirudielako.

Esan genezake gizartea ahalik eta etekin handiena lortzearen inguruan egituratua dagoela eta honek bizitzarekiko dugun ikuspegia guztiz aldatu du. Orain indibiduo bakartiak bihurtu gaituzte, debeku eta aginduak bereganatu dituzte, honek agintari figura ordezkaturik, eta boterearen hepizentroa degradaturik. Baina banakako subjektua 'botata' utzi du munduan, inolako sustengurik gabe eta hau aske dirudien gehiengo errendimendua lortzeari lotu da, honela bere burua explotatzen duen esklabu bihurtuz. Esaterako, lehia konstanteak Indibiduo bikainak izatera behartzen gaitu bizitzan zehar. Nerabe moduan ikasketa edo estatus sozialaren baitan eta heltzean lan munduan jardutean. Hau da, bizitza osoan zehar arrakasta esleitzen digute helburu. Gainera errua eta porrota egunez egun sentiarazten digute, honek gure buruari ematen diogun balioa kontrolaturik eta suprimitzen laguntzen dielako.

Beste alde batetik kapitalismoak informazioz bonbardeatzen gaitu, hiperatentzioa exijituz, hau da; gure harreta sakabanatzen du estimulu guztietara erantzun ahal izateko. Estimulu hauek isiltasuna betetzea dute helburu, eta burmuina balio gabeko informazioz betetzen du, pentsamendu kritiko eta sormen ahalmenari uko eginez. Bat-batean, aspertzeko edota sormena lantzeko ahalmena izatea luxu moduan aurkezten hasi da gaur egungo gizartean, non sare sozialek gure identitatea eraikitzen duten, eta etengabeko sormen faltsua irenstea eragiten diguten, honela banakako pentsamendua galaraziz. Estimuluz itotzen gaitu, izugarriko neke konstantea eragiten diguna. Lehertuta sentitzen garenean esfortzurik suposatzen ez dugun gauza bakarra sare sozialetan murgiltzea da, honek kantsatuago sentiarazten gaitu baina gutxienez erreala desinhibituta mantentzen gaitu. Honela sare sozialekin dugun harremana gurrupil zoroa bihurtuz.

Beste ildo batetik, harritzen nau nola bereganatu ditugun sistemak aintzat hartzen dituen ideia faltsuak gure egunerokotasunean leher eginda egotearekin zerikusia dutenak. Kontsumo masiboa ez da soilik arropan edo objektuetan ageri, baizik eta janariarekin dugun harremanean baita. Jada, jatea ez da ezinbestekoa den zerbait moduan ikusten, baizik eta, sentimentuak estaltzeko edota gorputzak aldatzeko erabilia dela ulertzen dugu ere. Elikadura orekatua oinarritzeko da energia izateko, orduan zergaitik produktu ultraprozesaturik barazkiak baino askoz merkeagoak dira? Agian, ageria ez den arren sistemak gure erosketa saskia aukeratzeko ahalmena du. Agian ondo datorkiona injektatzen du gure dietan. Bestela, zergaitik ez dira *redbull*, kafea edo azukrea kontrolpean saltzen? Bat-bateko energia kapitalismoaren funtzionamendu egokia ahalbidetzen du, baina gizarte osasuntsua eta bere kabuz pentsa dezakeena edukitzeko guztiz kontraesankorra da. Honek agerian uzten du sistemak subjektu energikoak gustoko dituela, baina beti ere energia hori kontsumitu edo produzitzen inbertitzen dutenean.

Ezinezkoa da gizarte osasuntsu bat egituratzea subjektu aske baino bakartiak sortuz, zeinen arteko oinarritzeko harremana konpetentzia den. Gizaki indibidual bihurtu gaituzte, horregaitik subjektua kanpo agintari bati men egiten dio indibidualtasuna eta honekin batera askatasunak dakarren ardura alde batera uzteko. Gizakiok ez dugu indibidualtasun honen baitan hondo funtzionatzen, Arendt-en esanetan "Erabaki aktibo eta indibidual konsistente bakarria, askatzean eta indibidualismoa alde batera uztean oinarritzen da, hobeto funtzionatu ahal izateko". Bestalde, argi dago sistema honek norberak bere hegoa gizontzearen baitan funtzionatzen duela, komunitatetik eta aldi berean gizakiaren berezko naturatik aldentuz. Beharbada, hainbeste aldentu gara non orain ezin dugun ezta lehertuta gaudela sentitu, sentazioek garrantzia galdu baitute. Emozio eta sentimenduek

espazioa galdu dute gizartean, horregatik esan genezake, subjektu indibidual moduan egin genezakeen kontzientzia ariketa handia, sentitzen dugunari erreparatzea dela, horrela gure bizitzan zehar leporatu ditugun kargetaz ohartu eta hauek sentitzeko aukera baimenduz.

Borobilduz esan nahiko nuke, bizi garen sistemak duen funtzionatzeko era gurekin bukatuko duela. Sostengaezina da daramagun bizimodu esklabista, non egunero hobe izatearen presioak guztiz kontsumitzen gaituen, non bizitza osoan zehar bilatzen gabiltzan helburua gezur huts bat den eta non 'askatasuna' hitzak baliozkotasuna galdu duen. Nolanahi ere, beti edukiko dugu ikasi, pentsatu eta sortzeko ahalmena. Ditugun ideia hegemonikoak zalantzan jarriz, azperten ikasiz eta bizitzari gure forma emanaz segurazki munduak pisu gutziago du. Segurazki bizitza ez da hainbesterako.

Mikela Belasko Zubero